

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4740

60/2023 EBAZPENA, irailaren 29koa, Gornizko Ospitaleko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Miguel Ángel Escalante Boleas jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gornizko Ospitaleko Barne-medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko Burua kargutik kentzen den, berak hala eskatuta.

Gornizko Ospitaleko zuzendari-gerentearen martxoaren 14ko 68/2022 Ebazpenaren bidez (EHAAn argitaratu zen), Miguel Ángel Escalante Boleas jauna izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gornizko Ospitaleko Barne-medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko buru.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Miguel Ángel Escalante Boleas jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gornizko Ospitaleko Barne-medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko Burua kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2023ko urriaren 1eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gorniz, 2023ko irailaren 29a.

Gornizko Ospitaleko zuzendari-gerentea,
M.^a CARMEN RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ.